

AZTI

Lana eta familia uztartzeko neurriak eta gizarte-onurak

Bizitza pertsonalaren,
lanekoaren eta familiakoaren
kalitatea





Lana eta familia uztartzeko neurriak eta gizarte-onurak

Atsegin handiz bidaltzen dizugu gida hau, non jaso ditugun lana eta familia uztartzeko AZTIko langileok dauzkagun neurriak eta bestelako onura sozial batzuk, erraz ulertzeko moduan jaso ere.

Interes profesionalak, familiarrak eta pertsonalak uztartzeko neurriak, onurak eta laguntzak eskaintzen dizkie AZTIk bere langileei, berdintasuna gidari dela. AZTIIn lan egiten duten guztiei aplikatzen zaizkie gida honetako neurriak.

Taula honetan duzue, zehatz adierazita, AZTIk urtean egiten duen borondatez hobetzeko gure batez besteko gastua bere hitzarmenean

jasota dauden zenbait prestazio (aldi baterako ezintasuna, amatasuna, aitatasuna, edoskitzea) eta bestelako onura sozial batzuk (norberak hautatzeko egunak, bizi- eta istripu-aseguruak...).

ONURA SOZIALETAN URTEAN EGITEN DEN BATEZ BESTEKO GASTUA

KONTZEPTUA	URTEKO GASTUA, BATEZ BESTEKOA
Soldataren % 100aren estaldura, lehenbiziko egunetik, laneko bajetan	52.000 €
Amatasuna: 5 aste gehiago	51.000 €
Edoskitzea: urtebetera arteko estaldura	55.000 €
Aitatasuna	2.300 €
Norberak hautatzeko egunak	80.000 €
Bizi- eta istripu-aseguruak	19.500 €
Urteroko azterketa medikoa	12.000 €
GUZTIRA	271.800 €

BESTE ONURA SOZIAL BATZUEK DITUZTENEN KOPURUA

Iraupen luzeko lana dutenak (astean egun bat edo bi, urtebetez)	28
Telelanaz baliatzen diren langileen % (egun bat edo bi, edo, gehienez, hilabete)	60%
Lanaldi murriztua duten langileak	59


Dokumentu honetan jasotzen diren neurriek Langileen Estatutuan ezarritako lege-baldintzak nabarmen hobetzen dituzte, eta AZTI Fundazioarekin lan-kontratua duten guztiei aplikatzen zaizkie. Zientzia eta teknologiako euskal sareko ikerketa-zentroetan indarrean dauden hitzarmen kolektiboen batezbestekoarekin eta gainerako lan-erakundeenekin alderatuta, abantaila nabarmenak dituzte neurriak.

01 Laneko eta familiako bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak.

02 Laguntzak eta beste onura batzuk.

01

Kontziliazio- neurriak



01.1

Lanorduak eta ordutegia.

- / **Lanorduak.** Urtean, 1.670 ordu, lan-egutegiaren arabera banatuta. Lanordu errealtzat kontatzen da goizeko 15 minutuko atsedena. (Langileen Estatutuak urtean 1870 lanordu aurreikusten ditu).

/ Lan-ordutegi malgua.

- / Sarrera: **7:30etik 8:45era.**
- / Irteera: **16:05**etatik aurrera
- / Jateko gutxienezko denbora: 15'

/ Ostiraletan. 7 orduko jardunaldia.

- / **Jai-bezperetan.** Lanaldia murrizten saiatuko gara, ahal den neurrian, urteko ordu-kopuruaren arabera.
- / **Udako lanaldi jarraitua.** Egunean **6,5 ordu**, ekainetik irailera bitartean, urteko ordu-kopuruaren arabera.

01.2

Telelana

Laneko eta familiako bizitza uztartzeko, betiere lanak horretarako aukera ematen badu, telelana sustatzeko mekanismoak ezarri dira, eta langilearen bizilekutik gertuen dagoen lantokia erabiltzeko aukerak eskaini. Bi modalitate daude:

- / **Iraupen luzeko telelana.** Hiru eta 12 hilabete arteko tarteetan egin daiteke telelana, etenik gabe.

- / **Aldi baterako telelana.** Zeregin jakin batzuk egiteko, eskatzailearen lanpostuaren ezaugarrien arabera betiere. Egun batetik hiru hilabete arteko aldietan aplika daiteke modalitate hori. (Estatutuan ez dago horren inguruko araurik).

01.3

Oporrak

- / Hilabete natural bat lan-harremanaren urtebete bakoitzeko. Ahal izanez gero, ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean egin behar dira, baina, salbuespen gisa eta lan-arrazoiengatik, beste egun batzuk ere proposa daitezke. (Estatutuaren arabera)

01.4

Baimenak

- / **Aldi baterako ezintasuna gaixotasunagatik edo istripuagatik. Soldataren % 100 18 hilabete arte,** eta, behin denbora hori igarotakoan, ezintasun iraunkorra onartzeko eskaera egiten bada, ezintasun-espeditatearen lehenengo ebazpenera arte. (Langileen Estatutuak, % 75)
- / **Lan-istripuaren edo gaixotasun profesionalaren kasuan, lanean baja ematen den hurrengo egunetik aurrera ordainduko da subsidioa.** Hala, **AZTIk prestazioa hobetzen du,** Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo Mutuak ematen duten subsidioa (% 75) **soldataren % 100**

raino osatzen baitu.

/ Gaixotasun arrunten eta **lanekoak ez diren istripuen** kasuan, **AZTIk soldataren % 100 ordainduko du aldi baterako ezintasun-egoeraren hasieratik**; hala, lege-araudia hobetzen du, lehenengo egunetik hirugarrenera bitartean lege-erregimenak ez baitu inolako diru-laguntzarik aurreikusten egun horietarako eta aldi baterako ezintasun-egoeraren 4. egunetik aurrera legez ezarritako subsidioa % 100eraino osatzen baitu. (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak 173.1 artikulua oinarri arautzailearen % 60 ezartzen du laugarren egunetik 20. egunera arte, hura barne, eta oinarri arautzailearen % 75 21. egunetik aurrera.)

/ **Ahaideen heriotza, istripua, gaixotasun larria eta ospitalizazioa. Hiru lanegun, bigarren mailako ahaideak badira; bost egun natural, lehen mailakoak badira.** Langileak ohiko bizilekutik 150 km baino gehiago desplazatu behar badu, bi egun gehiago izango ditu. (Desplazamendurik egin behar den edo ez, 2-4 egun aurreikusten ditu Estatutuak)

/ **Ezinbesteko betebeharrak publikoak edo pertsonalak betetzea (zitazioak, gidabaimena, NANA berritzea...).** Betebeharrak hori egiteko behar den denbora (Estatutuaren arabera).

/ **Ordezkaritza sindikala edo pertsonala.** Legez ezarritako baldintzen arabera. (Estatutuaren arabera).





- / **Ohiko bizilekuz aldatzea. Bi egun natural.** (Langileen Estatutuan, egun bat)
- / **Norberak hautatzeko egunak. Urteko egun bat.**
- / **Ezkontzea / Izatezko bikote gisara erregistratzea. 21 egun natural,** ezkontza- edo erregistro-eguna ere barne dela, ezkontza aurretik edo ondoren hartzekoak. (Langileen Estatutuan, 15 egun)
- / **Bigarren mailako odolkidetasunera bitarteko ondorengoen edo zehar-ahaideen ezkontza. Ezkontza-eguna** (3, zeremonia langilearen bizilekutik 150 km-tik gora badago). (Langileen Estatutuak ez du eskubide hori aitortzen).
- / **Aitatasuna.**
- / **Semea edo alaba jaiotzea. Bost egun baliodun,** elkarren segidakoak izan ala ez, haurtxoa jaio eta hurrengo 15 egun naturaletan hartzekoak. Erditzean amak edo haurtxoak arazorik izan badu, edo haurtxoa aitaren ohiko bizilekutik 150 km baino gehiagora jaio bada, aitak beste bi egun natural hartzeko eskubidea du, kasu bietan. (Langileen Estatutuan, 2 egun). Gainera, aitak kontratua zortzi aste jarraituz eteteko eskubidea du, eta haur bat baino gehiago erdituz, adoptatuz edo etxean hartuz gero, bi egun gehiago har ditzake ume bakoitzagatik, bigarren umetik kontatzen hasita. (Estatutuaren arabera).

/ Amatasuna

/ **21 aste jarraitu, erditze-unetik hasita.** Bi aste luza daiteke ume bakoitzeko, bigarren umetik aurrera (erditze anizkoitzetan). Amak bere lan-etenaldiaren zati bat beste gurasoari eman diezaioke lehenengo sei asteak igarotakoan. (Langileen Estatutuak 16 aste aurreikusten ditu)

/ **Bularra emateko ordua. Ordubete murriztu daiteke lan-saioa, umeak 12 hilabete izan arte** (erditzea anizkoitza izan bada, gehiago luza daiteke). Horren orde, orduak metatu daitezke, amatasun-atsedenaldiaren amaieran baliatzeko. Edoskitzea artifiziala baldin bada, aita ere balia daiteke eskubide horretaz, aurrez eskatzen eta justifikatzen badu. (Langileen Estatutuan, 9 hilabete)

/ Adopzioa.

/ **21 aste, jarraian,** jaiotza- edo adopzio-egunetik aurrera. Haur bat baino gehiago adoptatuz edo etxean hartuz gero, bi aste gehiago adin txikiko bakoitzeko, bigarren umetik kontatzen hasita. (Langileen Estatutuan, 16 aste)

/ **Adingabeak edo desgaitu psikiko, fisiko edo sensoriala duten pertsonak zaintzeko.**

/ Lanaldia 1/8tik 1/2ra bitartean murrizteko eskubidea, **adin txikikoak 14 urte egin arte.** (Langileen Estatutuan, 12 urte)





01.5

Baimenak

/ Ordainduak

/ Ikasketak.

/ Lanpostuarekin edo langilearen eginkizunekin lotura dutenak. Gehienez, **ikasturte bat**.

/ Lanpostuarekin edo langilearen eginkizunekin zuzeneko loturarik ez dutenak. **Egun bat**, egin behar duen azterketa bakoitzeko. Bi egun, azterketa ikaslearen bizilekutik 150 km-tik gora izango bada.

/ **Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko.** Norbera edo 14 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasunen bat dutenak. **Gehienez lau ordu**, behar bezala egiaztatutako salbuespenetan izan ezik.

/ **Ekitaldi zientifiko, tekniko, profesional eta sindikal kolektiboetara edo elkargo edo erakundeen ekitaldi kolektiboetara joateko baimenak.** Beharren arabera.

/ Ordaindu gabeak

/ **Norberaren eginbeharretarako baimenak.** Gehienez ere hiru hilabete, bi urtetik behin.

/ **Askatasun-gabetzea.** Lanpostua

gordetzen da, kondena-epai
irmoa ematen ez den bitartean.
(Estatutuaren arabera).

01.6

Eszedentzia


- / **Nahitaezko eszedentzia, kargu publiko baterako izendatua edo hautatua izateagatik.** Lanpostua gordetzeko eta kargu publikoan dagoen bitartean antzinasuna zenbatzen segitzeko eskubidea. Lanpostura itzuli behar da kargua utzi eta hilabeteko epean. (Estatutuaren arabera).
- / **Borondatezko eszedentzia.** Lau hilabetetik bost urtera bitartekoa, enpresan urtebete baino gehiagoko antzinasuna dutenentzat. Berriro eska daiteke, baldin eta azken eszedentziatik lau urte gutxienez igaro badira. (Estatutuaren arabera).
- / **Seme-alabak zaintzeko.** Gehienez ere hiru urte, seme-alaba bakoitza zaintzeko (seme-alaba naturala, adoptatua edo etxean hartua izan), jaiotza-egunetik edo, hala badagokio, ebazpen judizialetik edo administratibotik kontatzen hasita. (Estatutuaren arabera).





02

Laguntzak eta
beste onura
batzuk



- / **Antzinasuna.** Kontratu finkoa duten langileek hiru urteko bat jasotzen dute kontratuaren **hiru urte bakoitzeko**.
- / **Aurrerakinak.** Langile aktiboaren hileko soldata likidoaren % **100eraino**.
- / **Polizak:**
 - / **Bizi-asegurua eta aseguru pertsonalak.**
36.000 euro heriotza istripu batek eragina bada;
24.000, heriotza naturala bada, eta 24.000 baliaezintasun iraunkor osoa jasaten baldin bada.
 - / **Auto-istripuak.** Norberaren autoa konpontzeko **gastuaren 400 euroko kostua**, gehienez ere, hartzen du bere gain enpresak, baldin eta autoa laneko ordutegian erabili bada eta konponketa hori estaltzen duen aseguru ez badu. Erabateko hondamena gertatuz gero, batez beste 16.000 euroko prezioa duen auto berri baten % 80rainoko kreditua emango du AZTIK.
 - / **Erantzukizun zibila. Gehienez ere 300.000 euroko kalte-ordaina** hondamenagatik, estaldura beharrezkoa baldin bada AZTIren kontura lanean ari zela langileak izan duen jokabideagatik edo haren ez-egiteagatik.
 - / **Lehenengo isunaren ordainketa.**
 - / **Azterketa medikoak.** Enpresan lanean
- hasi aurretik egiten dena eta urteroko ohikoa (azken hori borondatezkoa da). (Estatutuaren arabera).
- / **Kontsumo-maileguak. Gehienez ere 6.000 euro** etxebizitza edo autoa erosteko, eta **3.600 euro gainerako kasuetarako** (premia larrikoak jotzen direnak), interesik gabe eta gehienez ere 24 hilabeteko epean itzultzeko.
- / **Hizkuntza-ikastaroak.**
 - / Lanerako hizkuntza-ikastaroak behar dituztenen kasuan, ikastaro horiek trebakuntza-planean sartuko dira, eta % 100 finantzatuta egongo dira. Gainerakoentzat, diru-laguntza ikastaroaren kostuaren % 50 izango da, gehienez ere —pertsonako eta ikastaroko, 350 € (alda daiteke irizpidea)—.
 - / Hizkuntza hori euskara bada, neurri hauek aurreikusten dira langileak euskalduntzeko eta alfabetatzeko:
 - / HABEk homologatutako ikastaroak: lanorduetatik kanpo egiten dira, baina AZTIk bere gain hartzen ditu matrikula-gastuak.
 - / Barnetegira joateko laguntza: “liberatu” gisa joan daiteke, AZTIren zerbitzuen premiak oztopatu gabe.
 - / Intranetean, berriz, hizkuntzak hobetzeko aplikazio informatiko irekiak daude langile guztientzat,


02

Laguntzak eta
beste onura
batzuk

doan. (Horrelakorik ez dago
Estatutuan)

- / **Deskontu kolektiboak.** Ikusi hemen **deskontu kolektibo** guztiak: K/DP/ Ofertas Tecnia:
- / **Osasun-arreta.** Deskontua Igualatorio Médico Quirúrgico eta Sanitas-en
- / **Hurtzaindegi-txekeak.** EDUCA INFANTIL hurtzaindegi-/ baleak. Urteko soldata gordinetik kentzen dira.
- / **Bidaia.** % 10eko deskontua Barceló hoteletan. Kate horretako munduko hotel guztiei aplikatzen zaie deskontua.
- / **Telefonia.** % 15eko deskontua kuotetan Vodafonek merkaturatzen dituen produktuetan.
- / **Guggenheim museorako sarrerak.** Museorako sarrerak, doan.
- / **Bankuak.** La Caixaren eskaintzak, nomina helbideratzeagatik.

**Informazio gehiago: Hitzarmen
Kolektiboa eta Antolakuntza eta
Pertsonak.**







SEDE CENTRAL

Txatxarramendi Ugarte a z/g
E-48395 Sukarrieta - BIZKAIA (Spain)

-

Parque Tecnológico de Bizkaia
Astondo Bidea, Edificio 609
E-48160 Derio - BIZKAIA (Spain)

-

Herrera Kaia - Portualdea z/g
E-20110 Pasaia - GIPUZKOA (Spain)



T. (+34) 946 574 000 / (+34) 657 799 446



F. (+34) 946 572 555



E-mail: info@azti.es



www.azti.es

